

Funtsezko jarduerak

Gure proiektua martxan ipintzeko hainbat faktore ezberdin kontuan hartu behar ditugu. Kasu honetan, hau martxan jartzeko hainbat jarduera egin behar ditugu; hauei FUNTZESKO JARDUERAK deituko diegu. Ekintza edo jarduera hauek, garrantzitsuenak izango dira gure proiektuan eta gainera, ezinbestekoak izango dira eta 3 multzotan banatu ditugu:

EKOIZPENA:

Gure enpresa, arropa diseinatzen duen enpresa bat denez ekoizpen jarduera nahiko garrantzitsua da guretzat.

Gure funtzioa edo helburua gure arropa marka diseinatzea denez (gure berezitasunarekin) ekoizpen oso garrantzitsua da gure produktuak ekoizteko, diseinatze eta entregatzeko beharra dugulako.

Baita beharrezkoa da aipatzea, ekoizpen jarduera ezin dugula kanpoko enpresen esku utzi, gure beharra, produktua diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea delako, eta ez beste enpresa batzuen funtzioa.

ARAZOAK KONPONTZEA:

Beste jarduera garrantzitsuenetariko bat, arazoak konpontzea edo saihesteko ahalmena izatea da.

Kasu honetan guri aurkezten zaigun arazoa edo aurre egin behar diogun arazoari, jendeak izaten dituen arropako zikinkeriak dira; horretarako, guk diseinatu egin dugun produktuaren helburu nagusia, arropako orban hauek saihestea helburu du, (ere bai) pertsona batek arropa izatearen falta izan eta hau erostea, eta helburu garrantzitsuena ez izan.

Ekoizpena jarduera bezala, arazoak konpontzearen jarduera ezin diegu kanpoko enpresei utzi, guk arazo hori konpondu ahal izateko diseinatzen dugulako produktua.

PLATAFORMA EDO SAREKO JARDUERAK:

Hirugarren jarduera, plataforma edo sareko jarduerak dira.

Jarduera hauen bidez, gure helburua marka internet munduaren bidez zabaltzea eta jendea gure dendetara ezin bada joan, egun txarra egiten duelako, oso urrun bizi direlako.... gure webgunearen bitartez erostea edo galdetzea da. Horretarako, webgune bat sortu egin dugu www.polyalta.org izena duena, non edozein gauza kontsultatu edo erosi ahal da.

Sareen jardueran ere aipatu nahi dugu interneteko iragarkiak, non gure marka zabaltzeko egin ditugu, jende gehiago gure marka ezagutu ahal izateko.

Plataforma jardueretan, bi kasuak agertu ahal dira. Gure webgunearen kasuan ezin diogu kanpoko enpresei utzi, aurreko kasutan bezala, baino iragarkiak kontuan hartzen baditugu bai utzi beharko genieke beste kanpoko enpresei.

Laburbilduz, hiru jarduerak nahiko garrantzitsuak eta beharrezkoak dira guretzat, baina jarduera bat goraiatu egin behar badugu: ekoizpen jarduera da, lehen guztia aipatu dugunagatik.